



AUTOBUS BIDEZKO GARRAIO-ZERBITZUA

Maila Aurreratua

Prozedura ireki bidez kontratatzeko eta lehiaketa bidez esleitzeko ingurumen-irizpideak

Irizpide hauek autobus bidezko garraio-zerbitzuak kontratatzean aplikatzeko dira, hau da, langileak nahiz ibilgailuak zein instalazioak enpresa lizitatzaillearenak direnean.

Definitutako irizpide gehienak zerbitzu erregularretarako dira (flota txikiagoak edo handiagoak izan ditzakete zerbitzuek). Hala ere, zerbitzu diskrezional edo puntaletarako irizpideak ere eskaintzen dira.

Ibilgailu, instalazio eta/edo langile batzuk subrogatzen diren kontratu edo emakidetan, kontratazioaren arduradunak irizpideak behar bezala egokitu beharko ditu inguruabar zehatzetara.

1. Kontratuaren xedea eta espezifikazioak

1.1. Kontratuaren xedea

Hasteko, ingurumen arloko irizpideak aintzat hartuko direla azpimarratu beharra dago:

1. koadroa

Autobus bidezko garraio-zerbitzuaren kontratazioa, ibilgailuen, gidarien eta eguneroko kudeaketan ingurumen-irizpideetan oinarrituta, kontratua betetzerakoan inpaktu kaltegarriak minimizatzen.

1.2. Gaitasun teknikoari eta profesionalari buruzko irizpideak

Zerbitzuan erabilitako enpresa esleipendunen instalazioetan ingurumen-kudeaketa egokia egiten dela bermatzeko (garajeak, tailerrak, auto-garbiketako tunelak...), administrazioak ingurumen-kudeaketarako neurri jakin batzuk eska ditzake kontratua betetzerakoan, bai eta hura gauzatzeko gaitasun profesionala ere.

2. koadroa

Lizitatuzaileek erakutsi beharko dute kontratua betetzerakoan ingurumen-kudeaketarako praktika onak sistematikoki aplikatzea berma dezaketela. Hori egiteko bi bide erabil ditzakete: batetik, kontratatuko den garraio-zerbitzu publikoaren instalazio eta jarduerak egokiak direla ziurtatzen duen ingurumen-kudeaketarako ziurtagiri-sistema baten bidez (EMAS, ISO 14001 edo baliokideak) edo, bestela, zerbitzuarekin lotutako ingurumen-araudia eta ingurumenaren zaintza bermatzen duten prozeduren eta lan-praktiken bidez.

Jardueraren bat azpikontratatzeko bada (tailerrak, auto-garbiketako tunelak eta abar), azpikontratatuak baldintza horiek betetzen dituztela bermatu behar du enpresak.

Lehenengo kasuan, enpresak bere IKS ziurtagiria nahiz azpikontratatuak enpresena erantsi beharko du. Bigarrenean, berriz, lizitatuzaileak, B gutun-azalean, bere gaitasuna balioesteko aipatutako prozedurak (enpresa lizitatuzailearenak nahiz azpikontratatuarenak) jasoko ditu.

1.3. Derrigor bete beharreko espezifikazioak eta esleipen irizpideetan baloragarriak diren espezifikazioak

1.3.1. AUTOBUSEN EZAUGARRIEI buruzko irizpideak

Proposamenak berdintasunean balioesten direla bermatzeko, pleguan enpresak zerbitzua gauzatzeko erabiliko duen ibilgailu kopurua zehaztu behar da, bai eta aparteko jazoeren ondorioz erabili beharreko ordezkio edo errefortzu gisa erabiltzeko ibilgailu kopurua ere.

3. koadroa: Zerbitzu diskrezionaletarako edo flota murriztua duten zerbitzu erregularretarako

Kontratuari atxikitako ibilgailuek EURO VI isuri-estandarra bete behar dute.

Baloratuko da ibilgailuek CO₂ eta gas kutsatzaileen isuri txikiagoak izatea, motorizazio alternatiboa dutelako. Balorazioa egiteko, ibilgailu atxikiak DGT kategoriatik abiatuta lortutako batez besteko balioa hartuko da kontuan, formula honen arabera kalkulatu [autobusak linea edo ibilbide zehaztutara esleitzearen arabera ere doitu daitezke]:

$$\text{Eskaintzaren batezbestekoa} = \frac{\sum(\text{Ibilgailu} - \text{kop.}_i \times \text{Balioa}_i)}{\text{Ibilgailu} - \text{kop.}_{\text{guztira}}}$$

Hau da balioa_i:

DGT kategoria	Ibilgailu-mota	Balioa _i
Zero (urdina)	Bateriadun ibilgailu elektrikoak (BEV), autonomia zabalduko elektrikoak (REEV), gutxienez 40 km-ko autonomia duten hibrido entxufagarriak (PHEV+), edo erregai-pilako ibilgailuak	1
ECO (berdea/urdina)	40 km-tik beherako autonomia duten ibilgailu hibrido entxufagarriak (PHEV-), hibrido ez-entxufagarriak (HEV), gas natural konprimatuarekin (GNK), gas natural likidotuarekin (GNL) edo petroliotik likidotutako gasarekin (PGL) propultsatuak eta Euro VI betetzen dutenak.	0,5
C (berdea)	8 eserlektik gorako ibilgailuak, gasolinazkoak nahiz dieselak, 2014tik aurrera matrikulatuak (Euro VI)	0
B (horia)	8 eserlektik gorako ibilgailuak, gasolinazkoak nahiz dieselak, 2005etik aurrera matrikulatuak (Euro IV eta V)	n.a.

Kontratua formalizatu aurretik, enpresa esleipendunak ibilgailuen matrikulen zerrenda eta DGTren bereizgarrien kopia edo DGTren webgunearen bidez lortutako informazio baliokidea aurkeztu beharko ditu. Bertan, ibilgailu bakoitzari aplikatzen zaion bereizgarria kontsulta daiteke matrikula sartuta (<http://www.dgt.es/es/seguridad-vial/distintivo-ambiental/>).

3. koadroa: Flota ertain edo handiko zerbitzu erregularrak

Kontratuari atxikitako ibilgailu guztiek EURO V isurietako estandarra bete behar dute gutxienez.

Baloratuko da ibilgailuek CO₂ eta gas kutsatzaileen isuri txikiagoak izatea, motorizazio alternatiboa dutelako. Balorazioa egiteko, ibilgailu atxikien DGT kategoriatik abiatuta lortutako batez besteko balioa hartuko da kontuan, formula honen arabera kalkulatu [autobusak linea edo ibilbide zehatzetara esleitzearen arabera ere doitu daiteke]:

$$Eskaintzaren batezbestekoa = \frac{\sum(Ibilgailu - kop_{i} \times Balioa_{i})}{Ibilgailu - kop_{guztira}}$$

Hau da balioa_i:

DGT kategoria	Ibilgailu-mota	Balioa _i
Zero (urdina)	Bateriadun ibilgailu elektrikoak (BEV), autonomia zabalduko	1

	elektrikoa (REEV), gutxienez 40 km-ko autonomia duten hibrido entxufagarriak (PHEV+), edo erregai-pilako ibilgailuak	
ECO (berdea/urdina)	40 km-tik beherako autonomia duten ibilgailu hibrido entxufagarriak (PHEV-), hibrido ez-entxufagarriak (HEV), gas natural konprimatuarekin (GNK), gas natural likidotuarekin (GNL) edo petroliotik likidotutako gasarekin (PGL) propulstatuak eta Euro VI betetzen dutenak.	0,5
C (berdea)	8 eserlektik gorako ibilgailuak, gasolinazkoak nahiz dieselak, 2014tik aurrera matrikulatuak (Euro VI)	0,25
B (horia)	8 eserlektik gorako ibilgailuak, gasolinazkoak nahiz dieselak, 2005etik aurrera matrikulatuak (Euro IV eta V)	0

Kontratua formalizatu aurretik, enpresa esleipendunak ibilgailuen matrikulen zerrenda eta DGTren bereizgarrien kopia edo DGTren webgunearen bidez lortutako informazio baliokidea aurkeztu beharko ditu. Bertan, ibilgailu bakoitzari aplikatzen zaion bereizgarria kontsulta daiteke matrikula sartuta (<http://www.dgt.es/es/seguridad-vial/distintivo-ambiental/>).

4. koadroa

Kontratuaren esparruan erosten diren ibilgailu berriek gutxienez «ECO» kategoria izan behar dute, DGTk definitzen duenaren arabera.

1.3.2. AUTOBUSEN EKIPAMENDUARI buruzko irizpideak

5. koadroa

[Jarraian zerrendatutako irizpide guztiak ez badira balioetsi, irizpideen aukeraketa bat egin daiteke] Honako irizpide hauek kontratuan atxikita ageri diren ibilgailuen zer ehunekok betetzen dituen balioetsiko da:

- Konbustio-gasen irteerak bidaiariak sartu eta irteteko erabiltzen duten atearen aldean ez egotea.
- LED bidezko barneko eta kanpoko argiztapena izatea (aukerazkoa faroetan).
- Pneumatikoen presioa automatikoki kontrolatzeko sistema edo operadorearen instalazioetan presioaren kontrola egitea ahalbidetzen duen sentsoredun sistema izatea.
- Start/Stop sistema izatea (ibilgailu elektrikoek kasuan, betetzat joko da).

- Balaztatze-energia berreskuratze sistema hidraulikoak izatea.
- Kontsumoa denbora errealean adierazteko sistema izatea (takometroan integratua).
- Kontsumoa eta gidatze-eredua monitorizatzeko sistema telematiko integratua izatea.
- Gas bat edo gas hozgarrien nahasketa bat erabiltzen du aire girotuaren sisteman, batez beste atmosfera berotzeko potentziala (PCA) 150ekoa edo txikiagoa izanik.

1.3.3. MODU ERAGINKORREAN GIDATZEKO irizpideak

Irizpidea langileen ehuneko ehunari buruzkoa denean, zehaztapen teknikoetan beharrean, gaitasun-irizpideen barruan sar daiteke.

6. koadroa: Zerbitzu diskrezionaletarako edo flota murriztua duten zerbitzu erregularretarako

Zerbitzuari atxikitako gidariek gidatze eraginkorrari buruzko prestakuntza jasotzea azken 2 urteetan.

6. koadroa: Flota kopuru ertaina edo handia duten zerbitzu erregularrak

Zerbitzuari atxikitako gidarien % 50ek gidatze eraginkorrari buruzko prestakuntza jasotzea azken 2 urteetan. Ehuneko handiagoa izatea balioetsiko da.

1.3.4. MANTENTZE-LANEI buruzko irizpideak

7. koadroa

Ibilgailuen mantentze-lanetan, pneumatiko berriek, zerbitzurako beharrezkoak diren itsaspen-mailak betetzeaz gain, honako hauek izan behar dituzte:

- Eraginkortasun energetiko altua, pneumatikoen derrigorrezko etiketen sailkapeneko A klaseko eraginkortasun energetikoa -(EE) 1222/2009 Erregelamendua-.
- Zarata-emisio baxuak, pneumatikoen derrigorrezko etiketen sailkapeneko 1. edo «baxua» klaseko zarata-maila -(EE) 1222/2009 Erregelamendua-.
- [zehaztu kilometro kopuru minimoa ibilgailu motaren arabera] baino balio-

bizitza handiagoa.

8. koadroa

Mantentze-lanetan, honako ezaugarri hauek betetzen dituzten motorrerako olio lubrifikatzaileen ehunekoa balioetsiko da:

- [zehaztu kilometro kopuru minimoa ibilgailu motaren arabera] baino balio-bizitza handiagoa.
- Olioaren ehuneko bat oinarritzko olio birsortua izatea.

2. Kontratua gauzatzeko baldintzak

9. koadroa

Kontratuaren lehen urtean, gidari guztiek gidatze eraginkorrari buruzko prestakuntza jasotzen jarraitu beharko dute, aurreko bi urteetan jaso dutenak izan ezik. X urtean behin [zehaztu urte kopurua, lan-hitzarmen edo langileekin egindako akordioetan oinarrituta] gidatze eraginkorrari buruzko prestakuntza berriz ere eman beharko da, gaia gogorarazteko.

10. koadroa

Enpresa esleipendunak honako mantentze-lan hauek gauzatu beharko ditu:

- Kontratuaren hasieran, motorraren mantentze-plana aurkeztu beharko da (ibilgailua aztertzea, olio-, aire- eta erregai-iragazkia garbitzea eta/edo aldatzea), ibilgailu bakoitzaren km kopuruaren arabera egin behar diren lanetan banatuta.
- Erregai-kontsumoa monitorizatzea (garraiatutako zamen eta ibilitako kilometroen datuak hartuz, eta/edo monitorizazio automatikoko sistemak erabiliz), motorrean egon daitezkeen arazoak antzemateko eta beharrezko aldaketak egiteko.
- Pneumatiko guztien presioa egunero begiz kontrolatzea eta 5.000 kilometro egiten diren aldiro presioa neurtzea (kontrol hori automatikoa izango da, ibilgailuek gurpilen presioaren adierazle automatikoak baldin badituzte).

11. koadroa

[Zerbitzuaren ingurumen-kalitatearen bilakaera monitorizatu nahi den zerbitzu erregularretan] Enpresa esleipendunak urtero aurkeztuko dio administrazioari zerbitzuaren kilometrajea, energia-kontsumoa (litrotan, kg-tan edo kW-tan, energia-iturriaren arabera) eta CO₂ eta gas kutsatzaileen emisioak guztira, kilometroko, ibilgailuko eta bidaiariko zenbatekoak izan diren adieraziko duen txostena, hobekuntza-jarduketak identifikatzeko eta planifikatzeko.

12. koadroa

Kontratua betetzen ari denean, erabili beharreko pneumatikoetan eta/edo olio lubrifikatzaileetan aldaketak aurreikusten badira, aldaketa horiek aurrez adostu behar dira kontratatzailearekin eta ordeko piezek eskainitako produktuen ingurumen-irizpide berak edo hobeak bete behar dituzte.

Kontratatzaileak, edozein unetan, eska ditzake eskainitako produktuen fakturak edo emate-agiriak, kontratuak irauten duen aldian kontratatutakoa betetzen dela egiaztatzeko.

13. koadroa

Enpresa esleipendunak honako hauen kudeaketa zuzena bermatu behar du, baimendutako kudeatzaileen bidez: kontratuaren aldian mantentze-lanen ondorioz sortutako hondakin bereziak -hala nola olio lubrifikatzaileak, pneumatikoak, iragazkiak, gailu elektrikoak eta elektronikoak, bateriak eta abar-; eta kontratuaren aldian erretiratutako ibilgailuak (1383/2002 Errege Dekretuan eta ondorengo aldaketetan ezarritakoarekin bat etorritik).

Kontratuaren aldiaren hasieran, zerbitzu honetarako kontratatutako kudeatzaileen datuak aurkeztu behar dira eta [adierazi maiztasuna; adibidez, hilero, urtero eta abar] txosten bat bidaliko da, aldatutako pneumatikoen eta motorrerako olioaren amaierako helmuga adierazteko. Txosten hori honako taula hauetan oinarritu behar da:

Pneumatikoa (izen komertziala)	Kopurua (kg-tan)	Helmuga (markatu kg-ak dagokion laukitxoan)			
		Berrerabilera (marratzea edo birkautxutatzea)	Birziklatzea	Balioztatze energetikoa	Azken helmuga (hondakindegia)

Motorrarerako olioak (izen komertziala)	Kopurua (litrotan)	Helmuga (markatu litroak dagokion laukitxoan)		
		Birziklatzea (birsortzea)	Balioztatze energetikoa	Azken helmuga (hondakindegia)

Kontratatzaileak, edozein unetan, adierazitako hondakinen onarpen-orriak eska ditzake, kontratuaren aldiaren hondakin horien kudeaketa zuzena egin dela egiaztatzeko.

3. Esleitzeko irizpideak

Esleipen-irizpideetan xehetasunez zehaztu behar da zein ponderazio emango zaion elementu baloragarri bakoitzari, baita ebaluatzeko formula edo parametroak ere.

Adibide gisa, balorazio-irizpideak aurkezten dira, formula matematiko bidezko balorazio automatikokoak ¹ eta formula matematikorik gabeko balorazio automatikokoak berezita:

14. koadroa

Formula matematiko bidezko balorazio automatikoaren irizpideak

Ibilgailuaren alderdi teknikoak eta ingurumenekoak:

- CO₂ eta gas kutsatzaileen isuri txikiagoak [8raino]
- Gasen irteerak bidaiariak sartu eta irteteko erabiltzen den atearen aldean ez dituztenen ehunekoa [1eraino]
- LED bidezko barneko eta kanpoko argiztapena dutenen ehunekoa [1eraino]
- Pneumatikoen presioa automatikoki kontrolatzeko sistema edo operadorearen instalazioetan presioaren kontrola egiteko sentsoredun sistema dutenen ehunekoa [1eraino]
- Start/Stop sistema dutenen ehunekoa (ibilgailu elektrikoek kasuan, betetzat joko da) [1eraino]
- Balaztatze-energia berreskuratzeko sistema hidraulikoa dutenen ehunekoa [1eraino]

¹ formula matematikoak bat baino gehiago izan daitezke (hiruko erregela sinplearen arabera, alderantziz proportzionala, desbideratze estandarren arabera, etab.), eta bakoitzak eragin desberdina izango du eskaintzen arteko bereizketan; beraz, kasu bakoitzean merkatuaren errealitatearen araberrako formula egoki bat ezarri beharko da, eskaintza bakoitzaren arteko aldeak proportziorik gabeko neurrian ez desitxuratzeko.

- Kontsumoa denbora errealean adierazteko sistema (takometroan integratua) dutenen ehunekoa [1eraino]
- Kontsumoa eta gidatze-eredua monitorizatzeko sistema telematiko integratua dutenen ehunekoa [1eraino]
- GWP \leq 150 gas hoztaileak erabiltzen dituztenen ehunekoa [1eraino]

Zerbitzuaren ingurumen-hobekuntzak (mantentzea eta gidatzea):

- Gidarien gidatze-prestakuntzan egindako hobekuntzak [2eraino].
- Bizitza baliagarri handiagoa duten olio lubrifikatzaileak [1eraino].
- Olio birsortuko oinarriko olio lubrifikatzaileak [1eraino].

4. Eskaintza teknikoaren edukia: eskaintzen aurkezpena

Aurkeztutako eskaintzak eta dokumentuak ebaluatzeko lana erraztearren, pleguan bertan zehaztuko da dokumentazioa nola aurkeztu. Informazio hori lizitazio-deialdian zehaztuko da, balizko lizitatzailleek behar beste denborarekin jakin dezaten.

15. koadroa

Enpresa lizitatzailleek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute, jarraian zehaztutako moduan:

- Zereginen eta emandako zerbitzuaren **memoria deskribatzailea**.
- Ingurumen-baldintzen egiaztapen-zerrendako 1., 2., 3., 4. eta 5. eranskinak²** behar bezala beteak, sinatuak eta zigilatuak. Enpresa lizitatzailleak adierazitako espezifikazioak (bai derrigorrezkoak, bai baloragarriak) betetzen direla **frogatzen duen dokumentazioa** ere atxiki beharko da.

² Ikusi kapitulu honetako "Checklist hornitzaileentzat" dokumentua, <https://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak> («Errepide bidezko garraio publikoko zerbitzua» atalean) webean eskura.